

ALIANZAK/FUNTSEZKO ELKARTEAK

Konpainia aliantzei dagokionez ezinbestekoa izango da beste enpresa eta hornitzaileekin harreman lagunkoi eta estuak eduki eta mantentzea. Gure negozio-eredua konparatu eta besteengandik ikusitako alde onak hartzea ere ezinbestekoa izango da gure enpresa eta honen ekintza ekonomiko merkatuan aurrera eramateko. Gainera gure enpresaren ezaugarria izango da ahalik eta maila handienera inguruko industriarekin harremanak edukitzea eta beharrezko materialak hortik lortzea.



Aurrean aipatutako enpresetako batzuk metalurgia arloan eta honen mekanizazioan aritzen direnetakoak izango liriateke, hala nola: Arcelor Mittal S.A (Olaberria), Industrias Metálicas Oñaz S.L (Azpeitia)... Hauetatik gurpilen barnean dijoazen alanbreak lortuko genituzke, gurpila sendoa eta fidagarria egiten duen materiala.

Industriako beste enpresa aliatuak petrolerak izango liriateke: Lemoizeko Petronor adibidez, Repsol bestela... Hauen eskutik gurpila egiteko beharko litzatekeen kautxoa lortuko genuen. Baina kasu hontan ez da normala izango kautxoa, baizik eta petrolera hauen laborategietan garatutako konpuesto organiko eta erregeneratibo bat (Aldacyna).



Beste enpresa motak izango liriateke kotxe markak, kotxeak egiterakoan fabrikatik gure gurpilekin ateratzeko adibidez, bezeroei gure gurpilek erabiltzeagatik komoditateak eta ofertak egitea...

Hala, tailer mekanikoekin ere hitzarmenak egin beharko genituzke, hauek ere bezeroei gure gurpilek eskaintzeko eta hauek jartzeagatik ahal den eina errentasunak ematea.